

Espainiar sistemako eskakizun txikienetakoa da, Bankuaren arrisku-profil egokiaren, kaudimenaren eta ahalmen-finantzarioaren erakusle

Kutxabankek %19,5eko MREL eskakizuna dauka

- **Azterketaren arabera 2021eko uztailaren 1ean 1.100 milioi euroko koltxoia jaulki behar luke, sistemako txikienetakoa, eta erakundearentzat erabat jasagarria**
- **Taldeak kalitate goreneko kaudimena ere badu Europako Banka Agintaritzaren ustez, eta kapital eskakizun txikiena Europako Banku Zentralaren aburuz**

2019ko maiatzaren 17an. Kutxabankek Espainiako finantza-sistema osoko MREL eskakizun txikienetakoa du, JUR-ek (Erresoluzio Batzorde Bakarra) ezarritako erregulazio-eskakizun berriaren arabera.

Kutxabankek 2021eko uztailaren 1etik aurrera, kalkulua egin zen datan zituen pasibo eta ondare propioen %10,51 lortu behar luke ondare propioen eta pasibo jasagarrien bolumenean. Zenbaketa 2017ko abenduaren 31n egin zen. Eskakizun hori **arriskuaren arabera neurtutako aktiboen %19,5 da.**

Azterketa honen ondorioz, Kutxabank Taldeak **1.100 milioi euroko jaulkipen hautagarria** egin behar luke araua bete ahal izateko. Emisio honek erakundearentzat oso bolumen jasagarria du.

JUR erakundeak Taldearen erresoluzio estrategiei buruz duen ikuspen positiboa erakusten du eskakizun-maila honek, bai eta kaudimenean eta ahalmen finantzarioan duen konfiantza ere.

MUR-ek babestutako erresoluzio araudiak bideraezintasuna sortuz gero kudeaketa arina egiteko plan zehatzak eskatzen dizkien finantza-erakundeei, eta sor litezkeen galerei eusteko gai diren tresnak sortzea berezko edo kanpoko baliabideekin. Eskakizun hau subordinatutako kapitalarekin eta finantza-tresnekin, zor subordinatuarekin edo senior-zorrarekin estaldu behar da. Aipatzekoa da, gainera, Kutxabank Taldearen kapital eskakizuna ohiko metodoa erabiliz kalkulatu dela, eta sistema hau kotizatutako erakunde nagusiek erabili duten IRB araudia baino zorrotzagoa da. Beraz, estuagoa da euskal finantza Taldeari jakitera emandako eskakizun-maila.

Azken hilabeteetan erregulazioko eta ikuskaritzako erakunde europar desberdinek Kutxabanken arrisku profila espainiar erakundeen artean hoberena dela onartu dute, eta Europako en artean onenetakoa. EBA erakundeak laugarren urtez jarraian kalitate goreneko kapitala duen erakundea dela aintzatetsi du, eta espainiar erakundeei Europako Banku Zentralak eginiko estres frogetan lehena izan da.

Bide batez, Ikuskaritzako Errebisio eta Neurtze Prozesuak (SREP ingelesez) Espainiako bankuen artean arrisku profil onena Kutxabanke duela ebatzi zuen, kapital eskakizun txikiena, eta lehen mailako kaudimenaren arabera ezarritako mailaren gainetik soberakin handiena izanik.

Honek guztiak Kutxabank Taldea ikuskatzen duten erakunde desberdinek Bankuaren gainean duten ikuspegi positiboa erakusten du, hala nola EBA banka-agintaritzak, ECB Ikuskaritzako Mekanismo Bateratuak, eta Erresoluzioko Mekanismo Bakarrak, euskal finantza Taldearen negozio ereduaren sendotasuna babestuz.